



# MUGIMENT GIPUZKOA.

## Kirol Orientazio Zerbitzua. 2018

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Idazkaritza teknikoa. *BPXport XXI S.L.U.*

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



# BPXport

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua



ORAIN KIROLA

## AURKIBIDEA

<b>0. Aurkezpena</b> .....	5
<b>1. Txostena egiteko ezarritako adierazleak</b> .....	6
<b>2. 2018ko datuen aurkezpena</b> .....	8
2.1. Zehaztuak. Zerbitzuka .....	8
2.2. Orokorrak. Gipuzkoa mailan artatutako erabiltzaileak adierazleka .....	9
2.2.1. <i>Sexua</i> .....	9
2.2.2. <i>Adin taldeak</i> .....	10
2.2.3. <i>Hautemaile edo ibilbideak</i> .....	11
2.2.4. <i>Orientazio bidea</i> .....	13
2.2.5. <i>Aktibotasuna</i> .....	15
2.2.6. <i>Patologiak eta desgaitasunak</i> .....	16
2.2.7. <i>Jarduera fisikoarekiko interesa</i> .....	16
<b>3. 2018ko datuen analisisa</b> .....	17
3.1. KOZ Udalerriak .....	17
3.1.1. <i>Sexua</i> .....	17
3.1.2. <i>Adin taldeak</i> .....	17
3.1.3. <i>Ibilbideak</i> .....	17
3.1.4. <i>Orientazioa</i> .....	17
3.1.5. <i>Aktibotasuna</i> .....	18
3.1.6. <i>Patologia</i> .....	18
<b>4. Laburbilduma, ekarpen eta ondorioak</b> .....	19

## 0. Aurkezpena

Kirola, eta jarduera fisikoa bere osotasunean, herritarren ezinbesteko parte izan behar dute. Norbanakoaren eta baita jendartearen ongizate osorako nahitaezko elementuak dira, ez baitago garapen integral eta osorik bizitza aktiboan txertatu gabe.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, inaktibitate eta sedentarismoari aurre egiteko asmoz, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoarekin eta Jarduera Fisiko eta Kirol Zerbitzuarekin batera Mugiment Estrategia abiarazi zuen 2017 urtean.

Estrategi horren barruan ekimen desberdinak daude. Horien artean, nagusiki, Tokiko Jarduera Fisikoaren Sustapenerako Sareetan garatzen diren KIROL ORIENTAZIO ZERBITZUAK (=KOZ) dira.

Aurrez azalduko erakundeek diru-laguntza zehatzak ezartzearekin batera, Sareen sustapenerako eta orientazio zerbitzuen ezarpenerako sustapen lan garrantzitsua egiten eta eragiten ari dira elkarrekin.

KOZ horiek ezaugarri komun hauek dituzte:

- Doakoak dira.
- Bertoko teknikariak Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietako graduatuak dira, lurraldeko hizkuntza ofizial bietan jarduteko gaitasuna izango dute.
- Herritarren esparru hurbileko kirol jarduera fisiko aukerak eta baliabideak ezagutzen dituzte.
- Teknikariek, baliabideak eta prestaketa dute herritarrak artatu, entzun eta beraien premiak eta bizitza aktiboarekiko zailtasunak ezagutu eta haien gaineko jokabide aldaketa egin eta eragiteko.
- Aldundiaren koordinazioaren bidez, orientazio esku-hartzeak modu batu eta bateratu batean egiten dira.
- Udalerri/auzoetako erakunde nagusiekin dute harreman sarea antolatua: osasun-etxe, udal gizarte zerbitzu, hezkuntza erakunde eta kirol eragileekin. harreman horri esker haietan hautemandako pertsonak jaso, orientatu eta bizitza aktiborantz orientatuko dituzte..

Txosten honek Gipuzkoan dauden KOZ horiek egiten diharduten lana jaso eta neurtu nahi du.

## 1. Txostena egiteko ezarritako adierazleak.

Orientazio zerbitzuetan hainbat aldagai eta adierazle ezarri ditugu Aldunditik Gipuzkoako lurraldean partaide diren udalerrri ezberdinetako zerbitzuek irizpide eta baldintza berdinetan aritze aldera. Honekin zerbitzuaren oinarria berdintsua izatearekin batera, sarean eta elkarlanean daudelarik zerbitzu ezberdinak, datuen ustiaketa eta analisiari begira kudeaketa erraztea bilatu nahi izan da.

Finkaturiko aldagaiak ondorengoan laburtuko lirateke:

### ▪ **SEXUA.**

Gainerako aldagaien inguruko analisia egiterakoan sexuaren arabera bereizirik aztertzeko aukera emango du. Bertan aukeren artean “Emakumea” (E) eta “Gizona” (G) aukeren bitartez.

### ▪ **PAR-Q GALDETEGIA.**

Orientatzaileek erabiltzaileei pasatzen dien galdetegi xumea. Bertan jarduera fisikoa egiteko gai ote diren ala ez ondorioztatzen duten galdera ezberdinak daude BAI/EZ erantzutekoak. Erantzunetakoren bat baiezkoa balitz medikuarenera joan beharko luke, jarduera fisikoa egiteko onespena izateko. Bertan aukeren artean “GAI” edo “EZ GAI” daude.

### ▪ **IBILBIDERATZE ABIAPUNTUA.**

Herritarrak artatzeko aukera bi daude: Norbere kasa zerbitzuaren berri jakin eta hitzordua eskatzea; edota, udalerriko erakunde/eragile nagusietako batean orientazio zerbitzurako bideratzeko hautagai bezala hautemana izatea. Modu horretan honela izendatu ditugu aukerok:

- (0) Nor bere ekimenez, auto deribazioa.
- (1) Osasun erakundeko bateko eragile batek hautematen duenean herritarra: familia medikuak, erizainak, pediatrak edota mediku espezialistak.
- (2) Ongizate zerbitzuekin harremandutako eragile batek hautematen duenean: gizarte-langilea, kale-hezitzailea, berdintasun-teknikariak, etxez etxeko laguntzaileak, eta abar.
- (3) Hezkuntzako eragile batek hautematen duenean: irakasle, orientatzaile, heziketa-fisikoko irakaslea edota tutorea.
- (4) edozein kirol-eragile: kiroldegietako harrera-zain administraria, klubetako entrenatzaile-hezitzaile edota kirol-begirale.

## ▪ **ORIENTAZIO BIDEA.**

Herritarren kasuan kasuko egoeren arabera kirol-orientatzaileak aukera desberdinak eskainiko dizkio udalerriko edo eskualdeko baliabide ezberdinen inguruko ezagutzari esker. Aukera horien kontrola egin ahal izateko ondorengo bide hauek kategorizatu ditugu:

- (1) Praktika autonomoa, eremu estalian: kiroldegi edo gimnasioak.
- (2) praktika autonomoa, eremu irekian. Bidegorri edota sarrera mugatu gabeko kiroldegiak.
- (3) Eremu estalian, praktika gidatu eta antolatua: Ikastaroak.
- (4) Eremu estalian, praktika gidatu eta antolatua: kirol-klubak.
- (5) Eremu irekian, praktika antolatua: tipi-tapa, kanpo dinamizazioak,...
- (6) Beste bat. Finkaturiko horiez at egon daitekeen kasurik egotekotan markatu beharrekoa.

## ▪ **KIROL BIZIPENA**

Galdetzen zaien beste item bat litzateke aurrez kirolari izan ote den, bere gustu eta abiapuntuaren inguruko informazio gehiago izateko asmoz. Bertan erantzuna “BAI eta ZER” edo “EZ” litzateke.

## ▪ **IPAQ PERFILAK.**

Lehen artapenean PAR-Qarekin batera IPAQ galdetegia ere pasatzen zaio. Honek azken asteko (7 egun) jarduera fisiko banaketa islatuko dio orientatzaileari eta kategorizazio aukera emango. Egun hauetako jarduera intentsitatearen arabera sailkatzen da jarduera fisikoa errealitatearen ikuspegia emanez. Erantzunaren arabera gaitasunaren inguruko 5 mailetako batean kokatuko luke:

- (0 maila) : Gaitasun oso eskasa. Astean 0-299 MET bitarte
- (1 maila) : Gaitasun eskasa. Astean 300-599 MET bitarte
- (2 maila) : Neurritzko gaitasuna. Astean 600-899 MET bitarte
- (3 maila) : Gaitasun altua. Astean 900-1499 MET bitarte
- (4 maila) : Gaitasun oso altua. Astean 1500 MET <

## ▪ **JARDUERA FISIKOAREN INTERESA.**

Erabiltzaileak jarduera fisikoarekiko duen atxikimendua jakiteko baliagarri izango da aldagai hau, beti ere kontuan izanik subjektiboa dela 1etik 10erako baloratzeko hau.

## ▪ **JARDUTEKO PROTOKOLOA.**

Herritarren orientazioa egiterakoan, gutxieneko, 5 jarraipen epe ezarri ditugu. Lehena, noski, lehen hitzordu/elkarrizketarena da (0. Jarraipena). Hurrengoak ere, elkarrizketa dira ondoren zehaztutako epe bitarteetan: 2 astera (1. jarraipena), 2 hilabetera (2. jarraipena), 6 hilera (3. jarraipena), eta 2 urtera (4. jarraipena),.

**\*\*Hauek aldagai guztietako datu aurkezpenetan 0,1,2,3,4 gisa ageri dira.**

## 2. 2018ko datuen aurkezpena.

### 2.1. Zehaztuak. Zerbitzuka

2018. urtea Mugiment Estrategiaren barneko Kirol Orientazio Zerbitzuen (KOZ) garapen eta errotze urtea izan da. Hauetako gehienek 2017an eman zioten hasiera eta zerbitzuak areagotzeko urtea izan dugu hau.


Bertan, 2017an egondako 166 erabiltzaileei beste 612 berri batu zaizkie, guztizko 778 erabiltzaileekin itxiz urtea. Erabileran beraz, ikusi besterik ez dago kopurua hazkundera egon dela ikusteko.

Zerbitzuei dagokienean, 2017 amaieran martxan jarri baina 2018an jendaurrean hasitako zerbitzu batzuk izan dira, hala nola, Eibar edota Zarautz, baita urte honetan hasiera eman diotenak ere honen lekuko Oiartzun.

Hau guztia esanik 2018an izandako udalerrien egoera ondorengoan laburtuko litzateke:

ZERBITZUGUNEA	PROGRAMA	ORDU/ASTE	HASIERA	IBILBIDEA	ERABILTZAILEAK				
					EMAKUME		GIZON		GUZTIRA
					Nº	%	Nº	%	Nº
DSS INTXAURRONDO	PIZTU	3	2017	1	24	52,5	22	47,8	46
DSS BENTA BERRI	PIZTU	3	2017	1	49	63,6	28	36,4	77
DSS AMARA BERRI	PIZTU	3	2017	1	43	52,4	39	47,6	82
DSS EGIA	PIZTU	3	2017	1	13	65,0	7	35,0	20
DSS GROS	PIZTU	3	2017	1	16	59,3	11	40,7	27
ARETXABAETA	ATXABALTAMUGI	12	2016	0,1,3	107	77,0	32	23,0	139
ELGOIBAR	ELGOIBAR SASOIAN	6	2017	0,1,2,3,4	13	59,1	9	40,9	22
EIBAR	MOBIDU	3	2017	1	6	75,0	2	25,0	8
BERGARA	GELDITZEKE	6	2017	0,1	7	77,8	2	22,2	9
BEASAIN	BIZIMODU OSASUNTSUA	6	2017	0,1	18	54,5	15	45,5	33
LEZO	MUITTULEZO	18	2016	0,1,2,3	62	59,6	42	40,4	104
PASAIA	BADIA AKTIBOA	6	2017	0,1,2	28	54,9	23	45,1	51
OIARTZUN	ABITTU	7	2018	0,1	6	60,0	4	40,0	10
HONDARRIBIA	BIXIBIZI	12	2017	1	36	57,1	27	42,9	63
ZARAUTZ	KIROLA OSASUNA ZARAUTZ	16	2017	0,1,2	20	58,8	14	41,2	34
AZPEITIA	AZPEITIBILI	4	2017	0,1,2,3	36	67,9	17	32,1	53
<b>GUZTIRA</b>		<b>112</b>		<b>0,1,2,3,4</b>	<b>484</b>	<b>62,3</b>	<b>294</b>	<b>37,7</b>	<b>778</b>

Taula 1. Gipuzkoako kirol orientazio zerbitzuen deskribapena (2018)




Grafikoa 1. Gipuzkoa mailan zerbitzuen araberako erabiltzaile banaketa.

## 2.2. Orokorrak. Gipuzkoa mailan artatutako erabiltzaileak adierazleka

Urte honetan zehar jasotako datu eta informazio oro aurrez definituriko aldagai ezberdinak kontuan izanik aurkeztuko dira ondorengo lerroetan.

### 2.2.1. Sexua

2018urte amaieran guztira 778 erabiltzaile izan dira Mugiment Gipuzkoa estrategia honetan, Kirol Orientazio Zerbitzuan (KOZ), 2017 urteko 166 erabiltzaileen aldean. Guztizko honetatik 484 (%62,3) emakumeak eta 294 (%37,7) gizonak izanik.




Grafikoa 2. Emakume eta gizonen erabilpen banaketa Gipuzkoa mailan.

## 2.2.2. Adin taldeak

Erabiltzaile horien adinari dagokionean zer nolako perfiletakoak diren begiratzekoan honakoa ikus daiteke Mugiment-ek ezarritako adin tarte berak mantenduz:


ADIN TALDEAK		0			1			2			3			4		
		E	G	T	E	G	T	E	G	T	E	G	T	E	G	T
<b>ADIN TXIKIAK</b>	17 >	10	15	25	6	13	19	6	6	12	4	4	8	-	-	-
<b>GAZTEAK</b>	18 - 34	26	16	42	16	9	25	11	5	16	8	3	11	-	-	-
<b>HELDUAK</b>	35 - 59	223	124	347	128	77	205	88	53	141	38	26	64	-	1	1
<b>ADINDUAK</b>	60 <	225	139	364	121	81	202	76	66	142	37	31	68	1	-	1
<b>GUZTIRA</b>		<b>484</b>	<b>294</b>	<b>778</b>	<b>271</b>	<b>180</b>	<b>451</b>	<b>181</b>	<b>130</b>	<b>311</b>	<b>87</b>	<b>64</b>	<b>151</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>2</b>

Taula 2. Adinen arabera bilakaera. \*0,1,2,3,4: jarraipenak / \*\*E,G,T: emakume, gizon eta totala



Grafikoa 3. Jarraipenetako bakoitzean adin talde bakoitzaren bilakaera.





Grafikoa 4. Jarraipenetako bakoitzean generoaren arabera bilakaera adin taldeak kontuan izanik.


### 2.2.3. Hautemaile edo ibilbideak

Aurrez aipatu bezala erabiltzailea orientatzailearengana heltzeko ibilbide ezberdinak daude: autoibilbidea, osasun arlokoa, gizarte zerbitzuetakoa, hezkuntzakoa eta kirol eragileetakoa hain zuzen.


Laburbilduz, honakoa litzateke ibilbideari dagokionean zerbitzuaren errealitatea:

	Ibilbidea	Erab. E		Erab.G		Erab.Total
		Nº	%	Nº	%	Nº
0	Autoibilbidea	141	71,6	56	28,4	197
1	Osasun Zerbitzuak	325	59,4	222	40,6	547
2	Ongizate Zerbitzuak	17	58,6	12	41,4	29
3	Hezkuntza	1	20,0	4	80,0	5
4	Kirol eragileak	-	-	-	-	-
	<b>GUZTIRA</b>	<b>484</b>		<b>294</b>		<b>778</b>

Taula 3. Ibilbideen erabilera.



Grafikoa 5. Erabiltzaile guztien ibilbideratze banaketa ibilbide eta portzentaietan.



Grafikoa 6. Ibilbideraturiko erabiltzaileen generoaren araberako banaketa.


### 2.2.4. Orientazio bidea

Orientatzaileak ibilbideraturiko kasuak ezagutu eta aztertu ostean hauen orientazioa burutzen du, egokien izan dezakeen jardura fisiko edo kirolera. Orientazio aukera hauek multzo ezberdinetan sailkatu dira hauen ezaugarrien arabera.


Orientazio honetan erabiltzaile guztietatik 626renak jaso dira, gainerakoek ez daudelarik eredu honen arabera jasoak.

ORIENTAZIOAK	0			1			2			3			4		
	E	G	T	E	G	T	E	G	T	E	G	T	E	G	T
1 Autonomo barne. Kiroldegi	92	78	170	83	65	148	63	44	107	24	19	43	-	1	1
2 Autonomo kanpo. Kale-mendi	170	117	287	105	67	172	71	52	123	43	29	72	-	-	-
3 Antolatua barne. Kiroldegi ikastaro	70	36	106	58	27	85	31	21	52	17	7	24	-	-	-
4 Antolatua barne. Kirol elkarte	9	3	12	3	2	5	2	0	2	2	1	3	-	-	-
5 Antolatua kanpo. Tipi tapa	8	14	22	5	7	12	4	4	8	0	1	1	1	-	1
6 Besteak	20	9	29	17	12	29	10	9	19	1	7	8	-	-	-

Taula 4. Orientazioak jarraipeneka. E: Emakumea / G: Gizona / T: Totala



Grafikoa 7. Orientazioen bilakaera jarraipenen arabera




Grafikoa 8. Generoaren araberako banaketa orientazioetan jarraipen bakoitzean.

## 2.2.5. Aktibotasuna

GUZTIRA	4 MAILA		3 MAILA		2 MAILA		1 MAILA		0 MAILA		AKTIBOTASUNA	
	Nº	%	Nº	%	Nº	%	Nº	%	Nº	%	Nº	%
471	42	8,9	37	7,8	80	17,0	89	18,9	223	47,3	223	47,3
62,1	63,6	50,7	50,7	65,6	61,4	61,4	61,4	63,4	63,4	63,4	63,4	63,4
287	24	8,3	36	12,5	42	14,6	56	19,5	129	45,0	129	45,0
37,9	36,4	49,3	49,3	34,4	38,6	38,6	38,6	36,6	36,6	36,6	36,6	36,6
758	66	8,7	73	9,6	122	16,1	145	19,0	352	46,3	352	46,3
267	45	16,8	66	24,7	72	26,9	35	12,9	49	18,0	49	18,0
60,0	69,2	52,8	52,8	62,6	48,6	48,6	48,6	72,1	72,1	72,1	72,1	72,1
178	20	11,2	59	33,1	43	24,1	37	20,8	19	10,7	19	10,7
40,0	30,8	47,2	47,2	37,4	51,4	51,4	51,4	27,9	27,9	27,9	27,9	27,9
445	65	14,6	125	28,1	115	25,8	72	16,2	68	15,3	68	15,3
180	40	22,2	52	28,9	33	18,3	21	11,7	34	18,9	34	18,9
58,3	62,5	55,3	55,3	51,6	56,8	56,8	56,8	68,0	68,0	68,0	68,0	68,0
129	24	18,6	42	32,6	31	23,9	16	12,4	16	12,4	16	12,4
41,7	37,5	44,7	44,7	48,4	43,2	43,2	43,2	32,0	32,0	32,0	32,0	32,0
309	64	20,7	94	30,4	64	20,7	37	12,0	50	16,2	50	16,2
86	20	23,3	22	25,6	24	27,9	14	16,3	6	6,9	6	6,9
57,7	62,5	55,0	55,0	57,1	60,9	60,9	60,9	50,0	50,0	50,0	50,0	50,0
63	12	19,0	18	28,6	18	28,6	9	14,3	6	9,4	6	9,4
42,3	37,5	45,0	45,0	42,9	39,1	39,1	39,1	50,0	50,0	50,0	50,0	50,0
149	32	21,5	40	26,8	42	28,2	23	15,4	12	8,0	12	8,0
1	-	1	100,0	-	-	-	-	-	-	-	-	-
50,0	-	-	100,0	-	-	-	-	-	-	-	-	-
1	-	-	-	-	-	-	-	1	100,0	1	100,0	1
50,0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
2	-	1	50,0	-	-	-	-	1	50,0	1	50,0	1

Taula 5. Aktibotasun maila jarraipen bakoitzean.



Grafikoa 8. Emakume eta gizonen kopurua aktibotasunaren aldagaiean jarraipeneka.

### 2.2.6. Patologiak eta desgaitasunak

Egun ez dago sistema honetan informazio honen ustiaketarako aukerarik duen formatua dela eta.

### 2.2.7. Jarduera fisikoarekiko interesa

Lehen egunean guztizko erabiltzaileetatik 636en interesa kontuan izanik batz bestekoa 6,4an kokatzen da, 1-10 bitarteko eskalan. Datu honen balioa jarduera fisikoarekiko ikuspegi subjektiboaren adierazlearekin lotzen da, atxikimenduarekin loturan egon daitekeena.

INTERESA	0		1		2		3		4	
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
<b>Kasuak</b>	376	260	273	181	183	131	88	64	1	1
<b>Kasuak<sub>guztira</sub></b>	<b>636</b>		<b>454</b>		<b>314</b>		<b>152</b>		<b>2</b>	
<b>BB</b>	6,42	6,39	6,84	6,7	7,09	6,89	7,14	6,81	3	7
<b>BB<sub>guztira</sub></b>	<b>6,41</b>		<b>6,78</b>		<b>7,01</b>		<b>7,00</b>		<b>5,00</b>	

Taula 6. Jarduera fisikoarekiko interes maila jarraipen bakoitzean.

### 3. 2018ko datuen analisia.

Gipuzkoako Kirol Orientazio Zerbitzu ezberdinetako erabiltzaileen datu ezberdinak ezagutu ostean hauen inguruko analisia gauzatuko da ondorengo lerroetan.

#### 3.1. KOZ Udalerrika

##### 3.1.1. Sexua

Ikus daitekeenez sexuaren aldagaiaren kasuan erabiltzaileen artean emakumeak dira nagusi, %62,3a ordezkatzeko baitute, gizonek aldiz %37,7a.

##### 3.1.2. Adin taldeak

Erabiltzaileen perfilarekin jarraituz eta adinera joaz nabarmena da erabiltzaileen gehiengo "heldu" zein "adinduak" taldeen barruan kokatzen dela, erabiltzaileen %91,4a ordezkatzeko baitute, %44,6 eta %46,8 hurrenez hurren.

Honetan zerikusia ibilbide aktibatuek izan dezakete, 1. Ibilbidea izan baita erabiltzaile iturri nagusia, osasun etxeetatik adinekoren perfila izanik harreman zuzeneko erabiltzailea.

##### 3.1.3. Ibilbideak

Erabiltzaileen jatorria behatuz ikus daiteke hauen gehiengo nagusia osasun zentroetatik (1 ibilbidea) datorrela, hots, %70,3a. Berriazko ibilbideratzeak batuz zerbitzuetako erabiltzaileen %95,6 ordeztuko lukete.

Urte honetan 1. Ibilbidea izan da hazten eta garatzen joan dena, bilakaera handiena izan duena, eta bertatik adin nagusikoak dira gehien ibilbideratzen direnak. Proiektuaren ikuspegiak lagundu egin du 2018 honetan orientatzailea osasun etxeen parte ere izaten zerbitzuko ordu batzuetan bederen, ibilbideratzearen dinamismoari begira interesgarria izan dena, baita erabiltzaileek zerbitzua gertuagotik ikusi eta ezagutzeko.

##### 3.1.4. Orientazioa

Erabiltzaileekin egon eta kasua aztertutik lehen egunean (0.jarraipena) hautatuena izan den orientazio bidea autonomoa izan da, erabiltzaileen %73,0. Autonomoaren barnean gehiago baliatu da kanporantz egitearena (autonomoen %62,8).

Autonomoa aukeratu duten 457 erabiltzaileen artean %62,8ak kanporantzko jardueraren batekin loturan egin du, barnekoa hautatu duten %37,2aren aldean.

.Gainerako jarraipenetan tendentzia hau mantentzen da, hots, autonomoa gehien

baliatua eta honen barnean kanpokoak.

### **3.1.5. Aktibotasuna**

IPAQ galdetegia pasa eta hemendik ateratako datuak azterturik orokorrean ikusten da aktibotasunari dagokionean perfil baxukoak direla erabiltzaileak, hots, 0 eta 1 mailan daudenak batuz erabiltzaileen %65,6a osatuko litzateke. Beste hitz batzutan, %34,4ak egiten du gutxieneko aktibotasuna bete, hauen barnean aktiboak edo oso aktiboak ere daudelarik).

### **3.1.6. Patologia**

Zerbitzu guztiak baturik egon daitezkeen patologiak hamaika direla ikusten da, baina hauen kudeaketa egiteko aukerarik ez dago honen formatua dela eta.



## 4. Laburbilduma, ekarpen eta ondorioak.

2018. urtean jasotako erabiltzaile guztien informazioarekin atera daitekeen ondorio nagusia perfilaren definizioa izan daiteke, datu eta informazio asko ematen digutena.

### Perfila:

- **Sexua:** Emakumea (%62,3)
- **Adin taldea:** Heldua (%44,6) / Adindua (%46,8)
- **Ibilbidea:** 0 (%25,3) eta 1 (%70,3)
- **Orientazioa:** Autonomoa (%73,0)
- **Aktibotasuna:** Neurritzotik behera (%65,6)

2017ko informean ondorioztaturikoaren ildotik oraingoan ere emakume heldua edo adindua da orokorrean zerbitzura bertaratzen dena, izan bere kabuz edota osasun arlotik ibilbideraturik. Jarduera fisikoaren gomendio eta orientazioari dagokionez bere kabuz egitea du arruntena, modu autonomoan. Aktibotasun horri dagokionez maila ertainetik beherakoa da erabiltzailea, inaktiboa alegia.